**INDAGINE SU UN CITTADINO AL DI SOPRA DI OGNI SOSPETTO / INVESTIGACIÓN SOBRE UN CIUDADANO LIBRE DE TODA SOSPECHA**

# El exceso de exposición al poder

QUIM CASAS

*Investigación sobre un ciudadano libre de toda sospecha* (1970) es uno de los ejemplos más claros de cómo el cine político italiano, en este caso el del romano Elio Petri –un director nada refinado que creía en una representación exagerada de la realidad a través de la cámara y una cierta estridencia actoral– utilizó el género policiaco para hacer más popular, más expansivo, su discurso de izquierdas. Restaurada en 4K por la cinemateca de Bolonia, de colores ásperos y con profusión de primerísimos primeros planos 'a lo Sergio Leone' que escrutan los poros e imperfecciones del rostro humano, la película parte de una situación bastante perturbadora: el jefe del departamento de homicidios de Roma (Gian Maria Volontè) asesina a su amante (Florinda Bolkan) y deja deliberadamente en el escenario del crimen pruebas que le imputan, ya que tiene una obsesión enfermiza en que los delincuentes y criminales puedan quedar impunes. Él mismo –el personaje carece de nombre ya que representa a todos los que en la policía y otros estamentos del poder eran o son como él, torvo, engreído e histrión– asegura ser víctima de una enfermedad contraída por el exceso de exposición al poder. Menudo personaje.



Antes citábamos a Leone por los primeros planos. La música del film de Petri lleva la firma de Ennio Morricone, y ésta puede que sea su banda sonora más representativa, al menos en el cine italiano, junto a las de la trilogía 'leoniana' del dólar y, dentro del policíaco francés, la de *El clan de los sicilianos*. Un buen ejemplo de la relación imagen/música serían los primeros quince minutos de la película, con ausencia absoluta de diálogos. La música característica de Morricone, sonido del arpa de boca incluido, le confiere aires caricaturescos a la llegada del policía a la casa de estilo modernista de su amante. Después, en uno de los momentos más turbadores del film, Petri filma el coito con ella montada sobre él de espaldas a cámara; la mujer profiere un grito que puede ser de placer o de dolor; es lo último, un estertor: en pleno orgasmo la ha degollado con una cuchilla de afeitar.

El personaje de Volontè, azote de comunistas, subversivos, toxicómanos y homosexuales, profundamente reaccionario, autoritario y a la vez falsamente paternalista con sus subalternos, traza así un plan que, en otro orden ideológico, guarda cierta relación con la trama de *Más allá de la duda*, escéptico film de Fritz Lang realizado en 1956 en el que un individuo deja falsas pistas que le incriminan como el autor de un asesinato para, en este caso, denunciar la arbitrariedad de un jurado que condena a alguien a la pena de muerte sin tener pruebas concluyentes. Todo le sirve al execrable responsable de la brigada de homicidios, incluso el asesinato para justificar su manera de pensar, actuar y seguir detentando el PODER, en letras mayúsculas.

Petri escribió el film con Ugo Pirro, guionista que trabajó con Matarazzo, De Santis, Zurlini, De Sica, Comencini, Bolognini y, más regularmente, con Lizzani y con la dupla Petri-Volonté –en *A cada uno lo suyo*, *Investigación…* y *La clase obrera va al paraíso*–, además de participar en la escritura de otros dos títulos clave de "Italia criminal", *El día de la lechuza* y *La fuerza del silencio*. En su momento, esta película agitadísima, enfermiza, siempre al límite en la puesta en escena y la interpretación malsana de Volontè, generó todo tipo de parabienes. Logró el Gran Premio del Jurado en el festival de Cannes, el David Di Donatello para el film y para Volontè y el Oscar a la mejor película de habla no inglesa, siendo nominada también al Oscar al mejor guion.

**CADAVERI ECCELLENTI / GORPU BIKAINAK**

# Egia iraultzailea ez denean, agurgarriak suertatzen dira gorpuak

BEGOÑA DEL TESO

Palermon gaude filmaren hastapenetan. Ez daki berak hori gertatu behar duenik, baina hiltzear den Varga prokuradorea Kaputxinoen katakonbetan da. Bertan , XVIII. eta XIX. mendeko goreneko jaunen gorpuak gordetzen dira. Hauts bihurtu dira hamaika. Beste ziento, aldiz, oraindik daude urrezko hariz jositako arropekin jantzirik, orain beren hezurretako hil-oihalak baino ez diren errege-kapa eta meza-jantzi horiekin.



Palermoko herriak jakin badaki Varga prokuradoreak maiz bisitatzen dituela leize horiek. Herriak dioenez, usatua da bizidunen kontuak hildakoei kontatzera. Asmatu gabe, antzeman gabe, irudikatu gabe paseo horren azken bueltan bera gorpu txit agurgarri horietako bat bilakatuko denik; pentsatu pe, bere gorpu txit agurgarri hori mugarri izango denik eta bere hilketa Leonardo Sciasciaren *Il contesto. Una parodia* izenburuko fabulari eta Francesco Rosiren *Cadaveri eccellenti* filmari hasiera emango dienik.

"Sicilia en el corazón" poemak eta "El mar de color de vino" ipuinak idatzi izan zituen sortzailea saiatu zen bere nobela poliziako-politikoa izenik gabeko, maparik gabeko, banderarik gabeko herrialde batean kokatzen. Alta, ez irakurleok ez ikusleok ez dugu duda izpirik, Italian gaude eta bai nobelak, bai filmak Italiako 'berunezko' urte haietan arrazoitu, azaldu ezinekoak ziren/diren gertaerak kontatzen dituzte berunezko urte horietan pistolak mintzatzen ziren eta alderdien arteko hitzarmenak perilosoak, misteriotsuak, zikin nahikoak ziren. Agian ez zenekien nork bahitzen zintuen, zeinek hiltzen zintuen. Baina bahitzen zintuzten. Baina hiltzen zintuzten eta, hiltzailea, bahitzailea ezagutzen zireneko une eskasetan ere auskalo nork, auskalo zerez estali egiten ziren izenak, estali zioak, estali negoziazioak…

Horrek guztiak tokiko, bertako, hurbileko literatura eta zinema mota propio bat eragin zuen, *giallo* bezain fama/mira handikoa, Frantziako *polar* bezain ospe ilunekoa, *poliziescoa*, Rosiren *Cadaveri eccellenti* genero horren eredurik, ispilurik gardenetako/opakuenetarikoa dela. Eta ez bakarrik thriller politiko on baten baldintzak betetzen dituelako (betetzen dituela, konplotak, goreneko boterearen, erdikoaren, azpikoaren erretratua, komunismoari beldur/gorrotoa, kristau-demokraten ezintasuna, mafiaren itzal luzea, aberatsen pribilegioak, herriari eginiko irain etengabeak, gazteen amorrua, kaleak sutan, isilgailudun pistolak…) baizik eta zinema bezala maisulan osoa delako. Nola definitu bestela kamera momia baten ahoan sartzeko ausardia duen filma? Nola egin uko garai hartako lotegi-hiriak, arkitektura berriaz eta berriak sortu horiek islatzeko abileziari, Rosik eta bere lantaldeak zinema paisaia bihurtzeko izan zuten gaitasunari?

*Poliziesco.* Nolatan ez litzateke izango genero horren etsenplu garbia *Il caso Mattei, Salvatore Giuliano, Lucky Luciano* bezalako lan parekorik gabeak sortu izan zituen zinemagile batek egina bada? Nolatan suak harturiko lur baten, herri baten, azpiko, erdiko, goreneko, ezkerreko., eskuineko botereen potreta bada? Nolatan Lino Ventura, Max von Sydow et Fernando Rey bertan badira? Nolatan batzuek eta besteek ahoskaturiko mezu politikoen garraztasun ustela (*Egia ez da beti, ez, iraultzailea…*) lur jota uzten bazaituzte gaurko gari gureetan ere? Nolatan ez izan *poliziesco*ren mugarrietako bat Antonionirekin, Fellinirekin, Taviani anaiekin, Angelopoulosekin lan egindako Tonino Gerrarena bada gidoia eta *Morte a Venezia* ko argi/itzalak asmatu/ames(gaizto) tu zituen Pascualino Di Santisek kontrolatu baitzituen hemengoak?

*Ilustrious Corpses, Gorpu txit gorenak. Eccellenti.* Parodia bat. Ere bai.